

# Sasoï baten azken bizi puskek

Sherwood Andersonen 'Winesburg, Ohio' itzuli du Joannes Jauregik, Literatura Unibertsala bildumaren barruan • Desagertzearen landa eremuan girotutako 21 istorio biltzen ditu lanak

## Itziar Ugarte Irizar

Zenbat balio dute asmatuiko herrixka bateko nekazari eta langileen ametsek? EIZIE, Erein eta Igelak sustatzen duten Literatura Unibertsala bildumako lan berriaren kontrazalean dator galdara -186. zenbakia da-. Azalean, berriz, etxe ondoko zuhaitzak bizitokia eta bizimoldea apurka irenstera doazela dirudi -Alain Urrutiak egin du-. Hori baita Sherwood Andersonen *Winesburg, Ohio* lanaren ardatzean dagoen garaia eta gatazka: XIX. mendearen amaiera da Ameriketako Estatu Batuetan, eta industrializazioaren hedapenak berekin eramango du landa aldeko ordura arteko bizitza. Desagertu aurretik, baina, hango jendeak bizitako ametsak, joan-etorriak eta horiek izendatzeko ezinak harrapatu zituen Andersonek bere lanik ezagunena den horretan.

Joannes Jauregi itzultzaile eta BERRIAKO literatur kritikari ohiak ekarri du lana euskarara, eta Lander Majuelo Igelako editoreak aipatu du ez dela maiz gertatzen «hain duinki» argitaratzea klasiko bat. «Bazeukan eleberri honek gauza bat zaila: tonua harrapatzea, pertsonaiak eta haien barne munduak direlako eleberriaren mamia». Behin hori harrapatuta, baina, osterako lana «erraza» izatea ospatu du, eta idazleak detaileak eta keinuak lantzeko zuen modua goratu: «Nahiz eta Far Westean kokatu, ez dago guk pelikula eta nobeletatik ezagutzen dugun mundu biolentoa, baizik eta nekazari munduan dabilzanen eta herriko denda txikietan mugitzen direnen egunerokoa. Oso eleberri humanista da alde horretatik; oso lotua gertakariari, hitzari, ez hainbeste metaforari».

Eleberri deitu du Majuelok, baina lana eleberriaren eta ipuin bildumaren artean dabilela zehaztu du Jauregik. 21 kontakizun laburrek osatzen dute liburua; modu soltean irakur daitezke, baina elementu komunak dituzte. Nabarmenena, kokalekua: guztiak gertatzen dira liburuari izenburua ematen dion Ohioko Winesburg herrixka asmatuan (AEB). Mapa bat ere badator hasieran, baina

personaiak dira zentroan daudenak liburuan. Bat ipuineko, izenburuek aurreratzen dutenez: *Esnatze bat*, *Belle Carpenterren hizpidean*; edo *Edana*, *Tom Fosterren hizpidean*. Bada, ordea, pertsonaia guztien artean gailentzen den bat: George Wilard, «ezinegon intelektualak dituen kazetari gazte bat», itzultzailearen hitzetan. «Besteek beren miseriak, istorioak, kezak... kontatzen dizkiote; nolabait, harengan bat egiten dute guztiak. Normalean, bigarren mailan gelditzen da, besteren batean protagonista da, baina figura zentrala da».

Hain justu, Wilardek idazlearen «ukitu autobiografikoa» izan dezakeela aipatu du itzultzaileak. Izan ere, Anderson ere Ohioko herrixka txiki batean jaio zen, 1876an, Camdenen -hango oroitzenekin sortuko zuen gero Winesburg-, eta, etxeko estuasun ekonomikoek behartuta, 14 urterekin eskola utzi eta askotariko lanak egitea tokatu zitzaion, tartean kazetaritzakoak. Jauregiren esanetan, hortik tiraka osatu zuen, hain justu, idazletzarako bidea. «Idazle autodidakta izan

zen. Oso behatzaile fina, baina irudimen handikoa».

## Modernismoa urratzen

Landa giroko bere jaioterritik atera, eta 20 urterekin heldu zen Anderson Chicagora, industrializazioa zela medio; «munduko hiriburuetako bat» bihurtzen ari zen orduan hiri hori. Haren biografari loturiko pasadizo bat oroitarazi



**Halako lan puska argitaratu eta figura literario gisa halako garrantzia izan arren, idazle txikitat zeukan bere burua»**

**Joannes Jauregi**  
Itzultzailea

du itzultzaileak: «1912an nerbio krisi bat izan zuen, eta lau bat egunez desagertuta egon zen. Inguruko herrixka batean azaldu zen gero, nor zen eta non zegoen jakin gabe. Oso debatitua izan da ea benetan amnesia zuen edo itxurak egin zituen, baina argi dago ondoren esan zuen lehen gauza izan zela gertatutakoari buruz idatzi be-

har zuela; hortik hasiz nobelak, ipuinak eta orotariko lanak idazten». Harik eta errealismoaren eta modernismoaren arteko zubigilerik behinenetako bat bihurtu zen arte.

1919an eman zuen *Winesburg, Ohio*, eta, jada «idazle gisa finkatuta», Chicagoko zirkulu literarioen parte bihurtu zen. Bitxia da kasua, ordea; lan horren ondoren, bai irakurleek eta bai kritikak albo batera utzi baitzuten, hein batean. Jauregi: «Kuriosoa da. Halako lan puska argitaratu eta figura literario gisa halako garrantzia izan duen norbaitek benetan idazle txikitat zeukan bere burua; aldiz, garai-ko zirkulu literarioetan

mentore izan zen; Hemingway eta Faulknerrena, besteak beste».

Literatur buelta hartako beste idazle bat ere aipatu du itzultzaileak: Edgar Lee Masters. «Hainbat kritikarik esan izan dute haren *Spoon River Anthology* [Spoon Riverreko antologia] poema liburua prosara ekarrita litzatekeela *Winesburg, Ohio*». Iragarri du,

gainera, aurki helduko dela euskarara hura ere.

## Mututasuna agerian

Kontaerari dagokionez, «beretzia» eta lehen irakurraldian «sartzen zaila» izan daitekeela aurreratu du itzultzaileak. Elkarriketak, paseoak, topaketak... kontatzen dira maiz, eta, tartean, denbora jauziak egiten ditu idazleak, pertsonaien iraganaz zein geroaz aritzeko. «Istorioaren erdian bukaera konta dezake. 'Hil egin zen'. Eta, hala ere, ipuina ez da hor bukatzen».

Estiloa ahozotasunetik gertu dagoela ere aipatu du Jauregik -«badirudi norbait benetako herri batean gertatutako zerbait kontatzen ari zaizula»-, eta «erregistro apala» darabilela herriko giro hertsia islatzeko. Elkarriketarik egiaz ere ez dagoela ohartarazi du, «bakarrizketak» baizik, azkenean narratzailearen diskurtsoan txertatu dituenak.

Izan ere, bizilagunen arteko inkomunikazioa da lanaren ardatzetako bat, eta horren zerbitzura ageri da idazkera. Jauregi: «Agian irakurleari irudituko zaio oso traketts adierazita dagoela pertsonaien barne mundua. Esan dezake 'barruan zerbait zeukan', zehaztu gabe. Baina, hain justu, hori da inportantea: pertsonaien mututasuna eta ezintasun emozionala; agerian geratzen da forman, edukian. Hori da liburuaren bertuterik handienetako bat».



Lander Majuelo, Manu Lopez Gaseni, Joannes Jauregi eta Aitziber Atorrasagasti, Donostian, *Winesburg, Ohio* lanaren aurkezpen egunean. MAIALEN ANDRES / FOKU